

EUSKAL ENPRESEN NAZIOARTEKOTZEARI LAGUNTZEKO PROGRAMEN ETA ZERBITZUEN GIDA 2024



araba álava
foru aldundia diputación foral




Bizkaia
foru aldundia
diputación foral





Aurkibidea

1. Sarrera	5
2. Gidaren deskribapena eta helburuak	9
3. Dirulaguntza programak	13
3.1. Zerbitzu eta produktuen salmenta	19
3.2. Nazioartekotzea lankidetzan	33
3.3. Ekoizpen-ezarreak	47
3.4. Talentua	53
3.5. Finantziazio-iturri berrietarako sarbidea	59
4. Servicios de apoyo ofrecidos a las empresas	63
4.1. Basque Trade & Investment-ek eskainitako zerbitzuak	67
4.2. Ganberek Basque Trade & Investmentekin sinatutako lankidetzahitzarmenaren bidez eskainitako zerbitzuak	75
4.3. Merkataritza-ganberek Arabako Foru Aldundiarekin sinatutako lankidetzahitzarmenaren bidez eskainitako zerbitzuak	83
4.4. Merkataritza-ganberek Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako lankidetzahitzarmenaren bidez eskainitako zerbitzuak	85
4.5. Merkataritza-ganberek Bizkaiko Foru Aldundiarekin sinatutako lankidetzahitzarmenaren bidez eskainitako zerbitzuak	91
5. Bestelako informazio interesgarria	95



1. Sarrera



Enpresen nazioartekotzea funtsezko apustua izan da hainbat hamarkadatan Euskadiren eta bere enpresen lehiakortasuna bultzatzeko eta kanpoko posizionamendua hobetzeko. Halaber, gaur egungo testuinguruan ere funtsezko tresna bat bihurtu da, aurrean ditugun **hiru trantsizio globalei** arrakastaz aurre egiteko: trantsizio energetiko-klimatikoa, ekonomiko soziala eta ziosanitarioa.

Ikuspuntu hau **Industria Garatzeko eta Nazioartekotzeko 2021-2024 Planean** jasota dago, bai **Eusko Jaurlaritzaren XI. Legegintzaldiko Euskadi Basque Country** Nazioartekotzeko Esparru Estrategian, bai lurralde bakoitzeko Foru-Aldudien estrategietan.

Euskal instituzio eta enpresa-sarerako dokumentu gidari hau lurraldearen eta enpresen kanpo-proiektzioa indartzeko beharra deskribatzen dute, krisi testuinguru iraunkorrari aurre egiteko eta giza garapen euskal eredu finkatzeko funtsezko zutabe gisa.

Kontuan hartuz daukagun nazioarteko egoera ekonomiko konplexua, kanpo-merkataritzako eta hazkunderako eragin negatiboa duten joera geopolitikoek baldintzatua, hala nola hornidura-krisi gero eta handiagoa, moneta krisia eta azpiko inflazioa edo Ukrainiako gerra, besteak beste, 19. Covid-etik, Brexitetik edo Txinaren eta Estatu Batuen arteko merkataritza-gerraren ondoriozko nazioarteko merkataritzaren polarizaziotik eratorritako beste batzuei gehitzen zaizkienak; **euskal erakundeok gure enpresei eta eragileei laguntzen jarraitu behar diegu, gure jarrera eta kanpo-lehiakor-**

tasuna indartzen jarraitzeko konpromisoarekin eta erantzukizunarekin.

Erronka honen aurrean, funtsezkoa da Euskadiko enpresentzat **nazioartekotze-sistema sendo eta efektibo** bat izatea, modu eraginkorrean aurre egin ahal izateko, erakundeen arteko lankidetzan oinarrituta, enpresei nazioarteko jarduera ekonomikoan laguntzeko eta **erreferentziako aliatu** estrategiko gisa eratzeko. Bide horretan, erakundeak aspalditik ari gara lanean, eta kanpo jardueraren aldeko ikuspegi bateraturantz aurrera egiteko apustua egiten jarraitzen dugu.

Asmo honekin, eta ahaleginak bideratzeko proposamenarekin, **prestatzioen proposamen orokorra argitzeko eta eskura dauden laguntza-tresnetarako sarbidea errazteko, hona hemen Euskal Enpresen Nazioartekotzea Laguntzeko Programen eta Zerbitzuen Gida 2024**, hiru foru-aldundiek eta Basque Trade & Investment Nazioartekotzeko Euskal Agentziak elkarlanean egina.

Gida hau nazioarteko merkatuetan euskal enpresen lehiakortasuna indartzeko eta testuinguru globalean Euskadiren garapen ekonomikoari laguntzeko erreferentziazko tesna gisa bihurtzen da.

Gida hau nazioarteko merkatuetan euskal enpresen lehiakortasuna indartzeko eta testuinguru globalean Euskadiren garapen ekonomikoari laguntzeko erreferentziazko tesna gisa bihurtzen da.



2. Gidaren deskribapena eta helburuak



Zer da Gida hau?

Gida honen bidez **programa eta zerbitzuei buruzko katalogo eguneratu eta bateratu bat osatu nahi da**, Euskadiko enpresen nazioartekotzea bultzatzen duten administrazio eta erakunde aktibo guztiek euskal enpresen eskura jarritz, nazioartekotze-prozesuan laguntzeko, haien heldutasun-maila edo nazioarteko jarduera-maila edozein dela ere.

Zein dira honen helburuak?

Beraz, helburu nagusia **programen eta zerbitzu eskaintzari buruzko informaziorako sarbide homogéneo eta integrala eskaintzea da**, dauden tresnen aprobetxamendua optimizatzeko, enpresa gehiagotara iritsiz.

Hala, dokumentu honetan kontsulta daitezke dirulaguntza programa eta zerbitzu guztiak, prestakuntza-programak eta nazioartekotze-prozesuan edozein enpresarentzat beharrezkoa den informazio erabilgarri guztia.



3. Dirulaguntza programak



Nola jakin zer programa diren interesgarriak nire enpresarentzat?

Gida honek eskura jartzen dizu zure enpresak jaso ditzakeen diru-laguntzen programak, galdera hauei erantzunez soilik:

A

Zein nazioartekotze-prozesutan zaude interesatuta?

- **Produktu eta/edo zerbitzuen salmenta**
- **Nazioartekotzea lankidetzan** (beste empresa batzuekin edo erreferentziazko eragileekin)
- **Kanpo-ezarpen produktiboa** – (Nazioarteko jarduera zabal eta finkatua duten enpresei bideratuta, kanpoko inbertsio produktiboak egiteko).
- **Talentu bilakera**
- **Nazioarteko finantziazio-iturri eta/edo inbertsio-proiektu berrietarako sarbidea**

B

Produktuak eta zerbitzuak kanpoan saltzeko interesa baduzu, zein nazioartekotze-fasetan zaude?

- **Hasiera** – “Zerbitzuak nazioartekotzeko edo produktuak esportatzeko interesa duten enpresak, baina aurretiko esperientzia izan gabe”
- **Finkapena** – “Dagoeneko ohiko moduan esportatzen duten enpresak eta merkatu berrietara jo nahi dutenak”.

C

Zein da zure empresa edo erakundearen tamaina-izaera?

- **Txikia**
- **Ertaina**
- **Handia**
- **Oinarri teknologikoko enpresa berria – Startup**
- **Irabazi-asmorik gabeko erakundea**

D

Zein lurralde historikotan dago zure enpresa/erakundea?

- Araba
- Bizkaia
- Gipuzkoa



Zure nazioartekotze-beharrak kontuan hartuta, aukeratu zure enpresarentzat erabilgarriena iruditzen zaizun laguntza-programaren kategoria-mota

A

Zerbitzu eta produktuen salmenta

Hasiera-fasean (nazioartean presentzia gutxi edo nulua) edo finkatze-fasean (herrialde berrietara zabaltzeko nahi diren ohiko esportatzaileak) dauden enpresentzako laguntza-programak.

B

Nazioartekotzea lankidetzan

Enpresa-lankidetzako talde-jarduerei laguntzeko diru-laguntzen programak, partzuergoak eta merkatutetan batera jarduteko konpromisoa duten beste figura batzuk, bereziki, gastu operatiboak eta sustapenarekin lotutako gastuak finantzatzeko.

C

Kanpo ezarpena

Dagoeneko finkatuta dauden enpresei atzerriko merkatuetan presentzia sendotzeko aukera ematen dieten laguntza programak, merkataritzako edo ekoizpeneko egitura berriak sortuz.

D

Talentua bilatzea

Kanpoko merkataritzan eta enpresen kudeaketan espezializatutako gazte tituludunak bilatzeko laguntza-programak, eta horiek kontratatzeko laguntzak.

E

Nazioarteko finantziazio-iturri eta/edo inbertsio-proiektu berrietarako sarbidea

Erakunde aldeaniztunen lizitazio publikoetan arrakastaz parte hartzeko laguntza-eta euskarri programak.

A ZERBITZU ETA PRODUKTUEN SALMENTA

IRABAZI ASMOA DUTEN ENTITATEAK			
	STARTUP	ETE	HANDIA
ARABA		INTERKOOP ETE	INTERKOOP ERAKUNDE TRAKTOREAK
BIZKAIA		NAZIOARTEKO PROGRAMAK	
GIPUZKOA		PRODUKTU BERRIAK NAZIOARTEAN MERKATURATZEN LAGUNTZEKO PROGRAMA	
EAE		ZABALDU*	
		SAKONDU**	

B NAZIOARTEKO LANKIDETZA

IRABAZI ASMOA EZ DUTEN ENTITATEAK	
ARABA	INTERKOOP ESAL
BIZKAIA	BITARTEKO AGENTEEN PROGRAMA
GIPUZKOA	SEKTOREA NAZIOARTEKOTZEKO PROGRAMA
EAE	ELKARTU

C KANPO EZARPENA

IRABAZI ASMOA DUTEN ENTITATEAK			
	STARTUP	ETE	HANDIA
ARABA		INTERKOOP	
BIZKAIA		NAZIOARTEKOTZE PROGRAMA	
GIPUZKOA		KANPOKO EKOIZPEN-EZARPENEN PROGRAMA	
EAE		GAUZATU	

D TALENTUA BILATZEA

IRABAZI ASMOA DUTEN/EZ DUTEN ENTITATEAK	
EAE	BEINT
	GLOBAL TRAINING

E FINANTZAZIO-ITURRI BERRIETARAKO SARBIDEA

IRABAZI ASMOA DUTEN ENTITATEAK	
EAE	PILOTU

3.1. Zerbitzu eta produktuen salmenta

INTERKOOP: ETE

Programaren helburua:

Arabako ETEen nazioartekotzea sustatzea, nazioartekotze prozesuetan enpresen arteko lankidetzaren bidez eta eta, modu osagarrian, banakako proiektuen bidez.

Mota:

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza.

Onuradun izateko baldintzak:

Enpresa txikia edo ertaina izatea (ETE), bere konfigurazio juridikoa edozein dela ere, egoitza soziala eta fiskala Arabako Lurralde Historikoan izatea, Lurraldean kokatutako produkzio- edo zerbitzu-zentroren bat izatea, eta gutxienez urtebeteko antzintasuna izatea, enpresa sortu zenetik eskabidea aurkeztu arte.

Prozedura:

Norgehiagoko-araubidea.

Aurreikusitako eskaera-data:

- 2024ko martxoaren 14an hasi
- 2024ko ekainaren 21ean amaituko da

Proiektuak egiteko epea:

- Laguntza eskatu ondoren eta 2025eko irailaren 12a baino lehen gauzatu beharrekoa.

Diru-laguntzen zenbatekoa/muga:

- Nazioartekotzeko banakako proiektua duten ETEak: diruz lagundu daitekeen gastuaren % 40. Gehieneko diru-laguntza: 30.000 euro proiektuko
- Nazioarteko lankidetzaren proiektu batean sartuta dauden ETEak, non Arabako bi enpresak edo gehiagok parte hartzen duten, edo erakunde eragile batek zuzendutako proiektu batean sartzen direnak: diruz lagundu daitekeen gastuaren % 60. Gehieneko diru-laguntza: 60.000 euro proiektuko
- Nazioarteko lehiaketetan edo lizitazioetan parte hartzeko proiektuak: diruz lagun daitekeen gastuaren % 60. Gehieneko diru-laguntza: 10.000 euro proiektuko

INTERKOOP: ETE

Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak:

Diru-laguntza jaso ahal izango dute "Nazioartekotzeko Enpresa Lankidetzak" proiektuak garatzeko jarduerak, hala nola lankidetzak teknikoak, komertzialak, finantzarioak edo beste mota batekoak, beste herrialde batzuetako enprekin, eta Arabako enpresen arteko lankidetzak, kanpora ateratzeko. Halaber, ETEak nazioarteratzeko banakako proiektuen kanpo-gastuak ere jaso ahal izango dute diru-laguntza.

- Kanpoko profesionali edo nazioartekotzean espezializatutako enpresei edo zerbitzu profesionaleko entitateei kontratatutako lanak, baita proiektuaren garapenari lotutako bestelako gastuak ere. Muga 30.000 euro.
- Bidaia- eta ostatu-gastuak.
- Nazioarteko azoketara joatea eta produktuen erakustaldiak edo sustapenak, biak atzerrian.
- Komunikazio-gastuak, gehienez ere 15.000 euro enpresako eta 30.000 euro proiektuko.
- Ibilgailuak eta taxiak alokatzeko gastuak.
- Inbertsio-gastuak, gehienez ere 20.000 euro proiektuko.
- Barne gastuak.

Proiektuak baloratzeko irizpideak:

Aurkeztzen diren eskaerak ondoren adierazten diren irizpide eta puntuazioen arabera baloratuko dira eta gutxienez 50 puntu beharko dira diruz lagundu ahal izateko. ETEen banakako proiektuetarako 60 puntu beharko dira gutxienez.

- Proiektua nazioarteratzeko ahalmena (0-40 puntu).
- Jarduerak ingurunean duten eragina (0-25 puntu)
- Proiektuaren kalitatea eta jasagarritasuna (0-25 puntu).
- Baloratzeko beste alderdi batzuk (0-10 puntu).

Administrazio-fitxa:

- | | |
|---|--|
| • Deialdia argitaratzea: ALHAO | • Eskaeren epea ixtea: 2024ko ekainaren 21 |
| • Eskaerak egiteko epea irekitzea: 2024ko martxoaren 14an | • Aurrekontuko zuzkidura: 400.000 € |

Estekak:

- Eskaera 
- Araudia 

Kontaktua:

-  Amagoia Zubillaga
-  +34 945 181818 (extensión 52323)
-  azubillaga@araba.eus 

INTERKOOP: ENTITATE ERAGILEAK

Programaren helburua:

Arabako enpresen nazioartekotzea sustatzea, nazioarteko prozesuetan enpresen arteko lankidetzak bultzatuz, erakunde eragileen bidez.

Mota:

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza.

Onuradun izateko baldintzak:

Arabako ETEen nazioartekotzeko proiektuetan laguntzen ari diren erakunde eragileak. Erakunde traktoreek egoitza soziala eta fiskala Araban izan beharko dute, zientziaren, teknologiaren eta berrikuntzaren euskal sareko eragileak izan ezik. Horretarako, nahikoa izango da Araban ekoizpen- edo zerbitzu-zentro bat izatea.

Prozesua:

Norgehiagoko-araubidea.

Eskaera egiteko gutxi gorabeherako data:

- Hasiera: 2024ko martxoaren 14an
- Amaiera: 2024ko ekainaren 21ean

Proiektuak egiteko epea:

- Laguntza eskatu ondoren, 2025eko irailaren 12a baino lehen gauzatzea, hori barne.

Diru-laguntzen zenbatekoa/muga:

- Nazioarteko lankidetzak proiektu bateko erakunde bultzatzaile nagusiak: diruz lagundu daitezkeen gastuaren % 80.
- Gehienezko diru-laguntza: 120.000 euro proiektuko
- Erakunde eragilearen diruz lagun daitezkeen gastua ezin da izan diruz lagundu daitezkeen aurrekontuaren %50 baino handiagoa.

INTERKOOP: ENTITATE ERAGILEAK

Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak:

Diru-laguntza jaso ahal izango dute "Nazioartekotzeko Enpresa Lankidetzak" proiektuak garatzeko jarduerak, hala nola lankidetzak teknikoak, komertzialak, finantzarioak edo beste mota batekoak, beste herrialde batzuetako enprekin, eta Arabako enpresen arteko lankidetzak, kanpora ateratzeko.

- Kanpoko profesionalen edo nazioartekotzean espezializatutako zerbitzu profesionalen enpresa edo entitateei kontratatutako lanak, baita proiektuaren garapenari lotutako bestelako gastuak ere. Muga 30.000 euro.
- Bidaia- eta ostatu-gastuak.
- Nazioarteko azoketara joatea eta atzerriko produktuen erakustaldiak edo sustapenak.
- Komunikazio-gastuak, gehienez ere 15.000 euro enpresako eta 30.000 euro proiektuko.
- Ibilgailuak eta taxiak alokatzeko gastuak.
- Inbertsio gastuak, gehienez ere 20.000 euro proiektuko.
- Barne-gastuak.

Proiektuak baloratzeko irizpideak:

Aurkeztzen diren eskaerak ondoren adierazten diren irizpide eta puntuazioen arabera baloratuko dira eta gutxienez 50 puntu beharko dira diruz lagundu ahal izateko.

- Proiektua nazioarteratzeko ahalmena (0-40 puntu).
- Jarduerak ingurunean duten eragina (0-25 puntu)
- Proiektuaren kalitatea eta jasangarritasuna (0-25 puntu).
- Baloratzeko beste alderdi batzuk (0-10 puntu).

Administrazio-fitxa:

- | | |
|---|---|
| • Deialdia argitaratzea: ALHAO | • Eskaeren epea ixtea: 2024ko ekainaren 21a |
| • Eskaerak egiteko epea zabalik: 2024ko martxoaren 14an | • Aurrekontuko zuzkidura: zehaztu gabe, deialdiaren gehieneko aurrekontuaren barruan. |

Estekak:

- Eskaera 
- Araudia 

Kontaktua:

-  +34 945 181818 (extensión 52323)
-  azubillaga@araba.eus 

NAZIOARTEKOTZE PROGRAMA

Programaren helburua

Bizkaiko ETEek nazioarteko merkatuetan duten sarbidea eta presentzia areagotzea, haien esportazio-ekintza bultzatuz.

Mota:

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza.

Onuradun izateko baldintzak:

Berezko nortasun juridikoa duten enpresak:

- Egoitza soziala eta fiskala Bizkaian izatea, eta ekoizpen-zentro bat edo balio erantsi handikoa Bizkaian.
- 5 eta 100 pertsona arteko plantilla (lanaldi osoaren baliokideetan).
- Industria, eraikuntza, garraioa, industriarekin lotutako zerbitzuak, turismoa eta handizkako merkataritza sektoreetako jardueretan aritzea (Foru Dekretuaren eranskineko epigrafeen arabera).

Prozesua:

Norgehiagoko-araubidea.

Eskaera egiteko gutxi gorabeherako data:

- 2024ko martxoa.
- Entitate bakoitzak gehienez 2 eskaera aurkeztu ahal izango ditu. Eskaera bakoitzak herrialde bakar bati zuzendutako proiektu bakarra izan behar du.

Proiektuak egiteko epea:

2023ko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra arte.

Diru-laguntzen zenbatekoa/muga:

- Diruz lagundu daitekeen gastuaren % 50a edo % 60a, lortutako puntuazioaren arabera.
- Eskaera bakoitzeko gehieneko diru-laguntza: 60.000 euro. Entitate onuradun bakoitzeko gehieneko diru-laguntza 100.000 eurokoa izango da, bi eskaerak onartzen badira.
- 6.000 eurotik beherako laguntzarik ez da emango.

NAZIOARTEKOTZE PROGRAMA

Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak:

Enpresa beste herrialde batean sartu nahi duten proiektuek jaso dezakete diru-laguntza. Halaber, ez da herrialde berriztat hartuko enpresak merkataritza - ordezkartitza bat duen herrialdea, azken 3 urteetan enpresak duen guztizko negozio-bolumenaren % 5 baino handiagoa izan duen herrialdea, edo enpresak Bizkaiko Foru Aldundiaren Nazioartekotze Programaren aurreko deialdietan herrialde horretan bi aldiz edo gehiagotan nazioartekotze-proiektuetarako diru-laguntza jaso duena.

- Langileen barne gastuak: langileen ordu kostua, herrialdean dauden bitartean, bai bidaiengatik, bai herrialde horretan lan egiten duten langileak izateagatik, bai proiektuko beste lan batzuk egiteko.
- Kanpo-merkataritzan espezializatutako langile teknikoen kontratazio berria, lan-kontratu batekin, lanaldi osokoa, gutxienez urtebeteko, gutxienez, 18.000 € urteko ordainsari gordinarekin.
- Enpresako plantillako langileen bidaia- eta ostatu-gastuak, bidaiengatik edo herrialde horretako langileak izateagatik.
- Proiektuari zuzenean lotutako kanpo-gastuak.

Proiektuak baloratzeko irizpideak:

Guztira: 100 puntu

- Enpresak nazioartekotzeko duen gaitasuna (20 puntu).
- Helmugako herrialdearen aukera (8 puntu).
- Helmugako herrialdean sartzeko moduaren azterketaren egokitasuna (16 puntu).
- Helmugako herrialdearen lehentasuna (10 puntu).
- Proiektuaren eragina (20 puntu).
- Proiektuaren definizioa eta aurkeztutako proposamenaren kalitatea (16 puntu).
- Enpresaren konpromiso soziala eta jasagarritasuna (2 puntu).
- Genero-berdintasunean egindako ibilbidea (2 puntu bitarte).
- Gizon eta emakumeen parte-hartze orekatua proiektuan (3 puntu bitarte)
- Lan-baldintza egokiak (3 puntu)

Administrazio-fitxa:

- Deialdia argitaratzea: BAO
- Eskerak aurkezteko epea: 2024 martxoa
- Aurrekontuko zuzkidura: 2.000.000€

Estekak:

- Eskaera 
- Araudia 

Kontaktua:

-  94 612 56 00
-  berrikuntzazerbitzua@bizkaia.eus 



PRODUKTU BERRIAK NAZIOARTEAN MERKATURATZEN LAGUNTZEKO PROGRAMA

Programaren helburua:

Programaren helburua Gipuzkoako enpresek produktu berriak merkaturatzeko eta nazioarteko merkatuan merkaturatzeko ekintzak sustatzea da.

Mota:

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza

Onuradun izateko baldintzak:

Gipuzkoako enpresa txiki edo ertaina izatea.

Prozesua:

Norgehiagoko-araubidea.

Aurreikusitako eskaera-data:

- Hasiera: 2024ko martxoa
- Amaiera: 2024ko apirila

Proiektuak egiteko epea:

- Proiektuak 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasi behar dira eta 2024ko irailaren 30era arte da epea proiektuak amaitzeko eta justifikatzeko.

Diru-laguntzen zenbatekoa/muga:

- Diru-laguntzaren gehieneko portzentajea: diruz lagundu daitekeen gastuaren %40.
- Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa erakundeko: 30.000 euro.
- Minimis arauaren mendeko diru-laguntzak.

PRODUKTU BERRIAK NAZIOARTEAN MERKATURATZEN LAGUNTZEKO PROGRAMA

Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak:

- Nazioartekotzearen arloko aholkularitza- eta prestakuntza-gastuak.
- Marketin- eta merkaturatze-ekintza esanguratsuak: zabalkundea, marketina, sustapena, azoka, biltzar edo ekitaldi garrantzitsuetan egotea, edo antzeko jarduerak.
- Patente-eskaerak, aurretiko azterketa eta aholkularitza barne.
- Marka-erregistroa, izen komertzialak.
- Hori guztia herrialde objektiboetara eta merkaturatu beharreko produktura bideratuta dago.

Proiektuak baloratzeko irizpideak:

Gehieneko puntuazioa: 100 puntu. Gehieneko puntuazio osoaren %50 baino gutxiago lortzen duten proiektuei ez zaie laguntzarik emango.

- Eskatzailearen ezaugarriak (20 puntu).
- Produktuaren berrikuntza (10 puntu).
- Nazioartekotzeko estrategia (20 puntu).
- Helburu diren merkatuak eta herrialdeak (20 puntu).
- Proiektuaren kalitatea eta egingarritasuna (10 puntu).
- Eragina enpresan (5 puntu).
- Ingurunean duen eragina (5 puntu).
- Konpromiso soziala eta jasangarritasuna (10 puntu).

Administrazio-fitxa:

- | | |
|---|---------------------------------------|
| • Deialdia argitaratzea: GAO | • Eskaeren epea ixtea: 2024ko apirila |
| • Eskaeren epea irekitzea: 2024ko martxoa | • Aurrekontuko zuzkidura: 550.000 € |

Estekak:

- Eskaera 
- Araudia 

Kontaktua:

-  Blanca Margeli
-  943 11 22 52
-  bmargeli@gipuzkoa.eus 

SAKONDU

Programaren helburua:

Sortzen ari diren enpresei (startups), 2014ko urtarrilaren 1tik aurrera eratuak, eta nazioartekotutako ETEei zuzendua, fakturazio osoaren %50etik gorako kanpo-esportazioa badute, eta. Esportazioen %25etik beherako balioak dituzten merkatuetan lehiatzeko posizioa hobetzeko helburua izanez gero.

Onuradun izateko baldintzak:

Nazioartean zabalduta dauden eta nazioarteko estrategia finkatu nahi duten euskal startupak eta ETEak.

%50a baino gehiagoko esportazio-jarduera izatea, baina helburu-merkatuak esportatutako guztizkoaren %25 baino gutxiago izatea. Esportazio-jarduerak guztizko negozio-bolumenaren %50a baino gutxiago izanez gero, ZABALDU programara jo dezakezu.

- EAEn kokatutako edo ekoizpen-instalazioa duten ETEak
- EB "minimis" arauaren mende
- Kanpoko esportazioa guztizkoaren %50 baino handiagoa izatea
- Esportazioen %25etik beherako balioak dituzten merkatuetarako

Mota:

Enpresen nazioartekotzea sustatzeko proiektuetarako funts galdurako diru-laguntza, aholkularitza operatibo edo estrategikoaren arloko gastu arruntak eta enpresak sustatu eta egokitzeko bestelako gastuak barne hartzen dituztenak, kanpoko merkatuetan sartzeko oztopoak gainditzeko.

Prozesua:

Eskaerak ordenan ebatziko dira, espedienteko dokumentazioa osorik dagoen unearen arabera eta aurrekontua agortu arte.

Aurreikusitako eskaera-data:

- Hasiera: 2024ko uztailaren 20an
- Amaiera: 2024ko irailaren 29an

Diru-laguntzen zenbatekoa/muga

- Onartutako proiektu-gastuen %50
- 45.000 € gehienez enpresa bakoitzeko (ekintza-mugarik gabe)

SAKONDU

Jasandako ekintzak eta diruz lagun daitezkeen gastuak

ETEak:

- Onartutako ekintzen denbora-irismena urte natural osoa da
- Eskaera bakarra onartuko da.
- Laguntza jaso dezaketen gastuak (ekintza-mugak 800€ eta 40.000€ bitartekoak dira):
 - » Aholkularitza estrategikoa eta operazionala
 - » Azokei lotutako gastuak, formatu presentzialean eta formatu birtual berrietan
 - » Bezero izan daitezkeenentzako bidaiak eta gonbidapenak
 - » Komunikazio- eta marketin-gastuak.
 - » Jabetza industrialari lotutako gastuak eta homologazioak.
 - » Patenteen eta marken erregistroa
 - » Ezarpenei lotutako gastuak

ortzen ari diren enpresak (startups-ak):

- ETEentzako diruz lagundutako gastuak
- Zientzia-paperak argitaratzearen ondoriozko gastuak
- Nazioartekotze-estrategia, nazioarteko marketin-planak eta/edo balizko ezarpenen bideragarritasun-azterketak egiteko barne-orduak

Proiektuak baloratzeko irizpideak

ETEak: 5 irizpide:

- Nazioarteratzeko Planaren kalitatea (50 puntu gehienez)
- Lehentasuneko geografiak 2021-2024ko ENParen arabera (gehienez 15)
- Ingurunean duen eragina (enplegua) (10p gehienez)
- Konpromiso soziala eta jasangarritasuna (gehienez 15p)
- Enpresen arteko lankidetzak (geh. 10p)
- Beharrezkoa da 50P gainditzea, eta gehieneko zenbatekoa, onartutako gastuaren arabera.

Enpresa berriak startups-ak: 3 irizpide

- Nazioarteratzeko Planaren kalitatea (gehienez ere 60p)
- Lehentasuneko geografiak 2021-2024ko ENParen arabera (geh. 10p)
- Ingurunean duen eragina (enplegua) (geh. 30p)

Onartutako gastuaren arabera gehienezko muga:- %50 ("80P") / %40 ("60P") / %35 ("50P")

Administrazio-fitxa:

- | | |
|---|---------------------------------------|
| • Deialdiaren argitaratzea: EHAA | • Eskaeren epea ixtea: 2024ko iraila |
| • Eskaerak egiteko epea irekitzea: 2024ko uztaila | • Aurrekontuko zuzkidura: 1.425.000 € |

Estekak:

- Eskaera 
- Araudia 

Kontaktua:

-  900 92 93 93
-  info@spri.eus 

ZABALDU

Programaren helburua:

ETEEi (tamaina-murrizketarik gabe) eta 2024ko urtarrilaren 1aren ondoren sortutako enpresa berriei (startups-ei) zuzendutako programa. Hala ere, nazioartekotze-fase hasiberri batean egotea, eta % 50etik beherako kanpo-fakturazioa eukitzea eskatzen da.

Mota:

Enpresen nazioartekotzea sustatzeko proiektuetarako funts galdurako diru-laguntza, aholkularitza operatibo edo estrategikoaren arloko gastu arruntak eta enpresak sustatu eta egokitzeko bestelako gastuak barne hartzen dituztenak, kanpoko merkatuetara sartzeko oztopoak gainditzeko.

Onuradun izateko baldintzak:

- Nazioarteko estrategia abiarazi edo sendotu nahi duten euskal startups eta ETEak
- Hedatze-fasean egotea eta esportazio-bolumen txikia eukitzea.
- Esportazio-jarduera %50 baino txikiagoa izatea.
- EAEn kokatutako edo ekoizpen-instalazioa duten ETEak
- EB "minimis" arauaren mende egotea
- Kanpoko fakturazioa: %50 baino gutxiago izatea
- Nazioarteko inbertsio publikoko proiektuen diseinuan eta garapenean parte hartzen duten ETEak, baldin eta sozialki errentagarriak eta jasagarriak badira.

Prozesua:

Eskaerak ordenatuta ebatziko dira, espedienteko dokumentazioa osorik dagoen unearen arabera eta aurrekontua agortu arte.

Aurreikusitako eskaera-data:

- Hasiera: 2024ko uztailaren 20an
- Amaiera: 2024ko urriaren 30ean

Diru-laguntzen zenbatekoa/muga:

- Onartutako gastuen %50
- 45.000 € enpresako (ekintza-mugarik gabe)

ZABALDU

Jasandako ekintzak eta diruz lagun daitezkeen gastuak

ETEak

- Onartutako ekintzen denbora-irismena urte natural osoa da
- Eskiera bakarra onartuko da
- Laguntza jaso dezaketen gastuak (ekintza-mugak 800€ eta 40.000€ bitartekoak dira):
 - » Aholkularitza estrategikoa
 - » Eragiketa-aholkularitza
 - » Azoketara joatea eta horietan parte hartzea, formatu presentzialean eta formatu birtual berrietan
 - » Bezero izan daitezkeenentzako bidaiak eta gonbidapenak
 - » Sustapen-gastuak
 - » Jabetza industrialari lotutako gastuak eta homologazioak
 - » Patenteen eta marken erregistroa
 - » Ezarpenak prestatzeko gastuak

Startups-ak

- ETEentzako diruz lagundutako gastuak
- Zientzia-paperak argitaratzearen ondoriozko gastuak
- Nazioartekotze-estrategia, nazioarteko marketin-planak eta/edo balizko ezarpenen bideragarritasun-azterketak egiteko barne-orduak

Proiektuak baloratzeko irizpideak:

ETEak (5 irizpide)

- Nazioarteratzeko Planaren kalitatea (50 puntu gehienez)
- Lehentasuneko geografiak 2021-2024ko ENParen arabera (geh. 10p)
- Ingurunean duen eragina (enplegua) (geh. 15p)
- Konpromiso soziala eta jasangarritasuna (geh. 15p)
- Enpresen arteko lankidetzak (10p gehienez)
- Beharrezkoa da 50P gaitutzea, eta gehieneko zenbatekoa, onartutako gastuaren arabera
- Startups-ak (3 irizpide)
- Nazioarteratzeko Planaren kalitatea (60p gehienez)
- Lehentasuneko geografiak 2021-2024 ENParen arabera (geh. 10p)
- Ingurunean duen eragina (enplegua) (geh. 30p)

Onartutako gastuaren arabera gehienezko muga:- %50 ("80P") / %40 ("60P") / %35 ("50P")

Administrazio-fitxa

- | | |
|--|---------------------------------------|
| • Deialdia argitaratzea: EHAA | • Eskieren epea ixtea: 2024ko urria |
| • Eskierak egiteko epea irekitzea: 2024ko ekaina | • Aurrekontuko zuzkidura: 2.500.000 € |

Estekak:

- Eskiera 
- Araudia 

Kontaktua:

-  900 92 93 93
-  info@spri.eus 

3.2. Nazioartekotzea lankidetzan

INTERKOOP: IRABAZI ASMORIK GABEKO ENTITATEAK

Programaren helburura:

Arabako ETEen nazioartekotzea sustatzea, nazioarteko prozesuetan enpresen arteko lankidetzaren bidez, irabazi asmorik gabeko erakundeen partaidetzarekin.

Mota:

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza.

Onuradun izateko baldintzak:

Irabazi asmorik gabeko entitateak, Arabako ekoizpen sarearen adierazgarria direnak eta

enpresen nazioarteko sustapenean esperientzia egiaztatua dutenak, hiru urteko ibilbidea gutxienez, eta helbide soziala eta fiskala Araban dituenak.

Prozesua:

Norgehiagoko-araubidea.

Eskaera egiteko gutxi gorabeherako data:

- Hasiera: 2024ko martxoaren 14an
- Amaiera: 2024ko ekainaren 2lean

Proiektuak egiteko epea:

- Laguntza eskatu, eta 2025eko irailaren 12a baino lehen.

Diru-laguntzen zenbatekoa/muga:

- Nazioarteko lankidetzaren proiektu bateko erakunde bultzatzaile nagusiak: diruz lagundu daitezkeen gastuaren %80. Gehieneko diru-laguntza: 120.000 euro proiektu bakoitzeko
- Enpresen nazioarteko sustapenean esperientzia egiaztatua duten irabazi-asmorik gabeko erakundeak: diruz lagun daitezkeen gastuaren %60. Gehieneko diru-laguntza: 60.000 euro proiektu bakoitzeko.

INTERKOOP: IRABAZI ASMORIK GABEKO ENTITATEAK

Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak:

Diruz lagunduko dira "Nazioartekotzeko Enpresa Lankidetza" proiektuak garatzeko jarduerak, hala nola lankidetza teknikoa, komertziala, finantzarioa edo beste mota batekoa, beste herrialde batzuetako enpresekin, eta Arabako enpresen arteko lankidetza, bultzatzeko.

- Kanpoko profesionali edo nazioartekotzean espezializatutako enpresei edo zerbitzu profesionalen entitateei kontratatutako lanak, baita proiektuaren garapenari lotutako bestelako gastuak ere.
- Bidaia- eta ostatu-gastuak.
- Nazioarteko azoketara joatea eta produktuen erakustaldiak edo sustapenak, atzerrian.
- Komunikazio-gastuak, gehienez ere 15.000 euro enpresako eta 30.000 euro proiektuko.
- Ibilgailuak eta taxiak alokatzeko gastuak.
- Inbertsio gastuak, gehienez ere 20.000 euro proiektuko.
- Barne-gastuak.

Proiektuak baloratzeko irizpideak:

Aurkezten diren eskaerak ondoren adierazten diren irizpide eta puntuazioen arabera baloratuko dira eta gutxienez 50 puntu beharko dira diruz lagunduak izan ahal izateko.

- Proiektua nazioarteratzeko potentziala (0-40 puntu).
- Jarduerak ingurunean duten eragina (0-25 puntu).
- Proiektuaren kalitatea eta jasangarritasuna (0-25 puntu).
- Baloratzeko beste alderdi batzuk (0-10 puntu).

Administrazio-fitxa

- Deialdia argitaratzea: ALHAO
- Eskaerak egiteko epea zabaltea: 2024ko martxoaren 14an
- Eskaeren epea itxiera: 2024ko ekainaren 21a
- Aurrekontuko zuzkidura: 240.000 €

Estekak:

- Eskaera 
- Araudia 

Kontaktua:

-  +34 945 181818 (extensión 52323)
-  azubillaga@araba.eus 

BITARTEKO AGENTEEN PROGRAMA, ENPRESEN NAZIOARTEKOTZEA SUSTATZEKO ERRONKA

Programaren helburua:

Enpresen nazioartekotzea sustatzea, lankidetza eta nazioartekotze jardueretan espezializatutako sektore edo eskualde mailako bitarteko eragileek garatutako enpresen arteko lankidetza ekintzen bidez.

Mota:

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza.

Onuradun izateko baldintzak:

Berezko nortasun juridikoa duten, eta enpresak biltzen dituzten irabazi asmorik gabeko entitate sektorialak edo eskualdekoak. Kanpo geratzen dira, besteak beste, sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak, ondasun erkidegoak, sozietate zibilak, eta prestakuntza zentroak.

Prozesua:

Norgehiagoko-araubidea.

Eskaerak aurkezteko epea:

- 2024ko otsaila
- Entitate bakoitzak bi eskaera aurkeztu ahal izango ditu gehienez.

Proiektuak egiteko epea:

- 2024ko urtarrilaren 1etik 2025eko abenduaren 31ra arte.

Diru-laguntzen zenbatekoa/muga:

Diru-laguntzaren portzentajea hau izango da, proiektuak lortutako puntuazioaren arabera:

- 60 puntu baino gehiago: %80.
- 35 puntutik 60ra: %60.
- 35 puntu baino gutxiago: %0.
- Eskaera bakoitzeko gehieneko diru-laguntza: 50.000 euro.
- Entitate onuradun bakoitzeko gehienezko diru-laguntza 80.000 eurokoa izango da, bi eskaerak onartzen badira.

BITARTEKO AGENTEN PROGRAMA, ENPRESEN NAZIOARTEKOTZEA SUSTATZEKO ERRONKA

Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak:

- Erakunde onuradunak proiekturako dituen langileen gastuak, proiektuari eskainitako lanari dagokionez.
- Proiektuari zuzenean lotutako kanpoko gastuak. Gastu horien artean, entitate onuraduneko langileen eta proiektuan diharduten enpresa parte-hartzaileen bidaia eta ostatu gastuak eta proiektua koordinatu eta dinamizatzeko gastuak.

Proiektuak baloratzeko irizpideak:

Guztira: 100 puntu

- Proiektuaren jatorria (20 puntu gehienez).
- Proiektuaren kalitatea eta egingarritasuna (30 puntu gehienez).
- Enpresetan duen eragina (27 puntu gehienez).
- Ingurunean duen eragina (15 puntu gehienez).
- Erakundeen arteko lankidetzak (10 puntu gehienez).
- Eragile berriak sartzea (5 puntu gehienez).
- Enpresaren konpromiso soziala eta jasangarritasuna (3 puntu).
- Genero-berdintasunean egindako ibilbidea (2 puntu gehienez).
- Gizon eta emakumeen parte-hartze orekatua proiektuan (3 puntu gehienez).

Administrazio-fitxa:

- Deialdia argitaratzea: BAO
- Eskabideak aurkezteko epea: 2023ko otsailaren 6a
- Eskaera-epearen itxiera: 2023ko otsailaren 24a
- Aurrekontuko zuzkidura: 650.000 €

Estekak:

- Aplikazioa itxita. 
- Araudia 

Kontaktua:

-  94 612 56 00
-  berrikuntzazerbitzua@bizkaia.eus 



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

NAZIOARTEKOTZE SEKTORIALAREN PROGRAMA

Programaren helburua:

Enpresa txikien nazioartekotzea erraztea, Gipuzkoako balio-kateak ordezkatzeko dituzten erakundeek sustatutako talde-izaerako merkataritza-ekintzak bultzatuz.

Mota:

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza

Onuradun izateko baldintzak:

Balio-kate bereko enpresen dinamizatzaile gisa jarduten duten eta Gipuzkoako enpresa txikien nazioarteko presentzia erraztuko duten baterako ekintzak sustatzen dituzten enpresa-talde berritzaileak.

Prozesua:

Norgeihagoko-araubidea.

Eskaera egiteko gutxi gorabeherako data:

- Hasiera: 2024ko martxoa
- Amaiera: 2024ko apirila

Proiektuak egiteko epea:

Diruz lagundutako jarduerak ezin izango dira hasi laguntza-eskabidea aurkeztu baino lehen, eta 2024ko irailaren 30a baino lehen amaitu beharko dira.

Diru-laguntzen zenbatekoa/muga:

Laguntzen finantzaketa: 150.000

- Diru-laguntzaren gehieneko portzentajea: diruz lagundu daitekeen gastuaren %40.
- Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa erakundeko: 30.000 euro.

NAZIOARTEKOTZE SEKTORIALAREN PROGRAMA

Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak:

Dirulaguntzen helburua izango da Gipuzkoako enpresek beren erakunde sektorial ordezkariak sustatzen dituzten baterako jardueretan parte hartzearen ondoriozko kostuak batera finantzatzea. Proiektuek 50 langile baino gutxiagoko Gipuzkoako 10 enpresa txikiren presentzia izan beharko dute, gutxienez.

- Baterako jarduketak antolatzen dituzten entitateen barne gastuak.
- Marketin- eta merkaturatze-ekintza garrantzitsuen kanpo-gastuak: hedapena, marketina, sustapena, azoketan, biltzarretan edo ekitaldi garrantzitsuetan parte hartzea edo antzeko jarduerak.
- Hala badagokio, bertaratutako enpresentzat ezar litezkeen bidaia-poltsak. Gehieneko balioztat hartuko dira Eusko Jaurlaritzak bere deialdietan aplikatutakoak.

Proiektuak baloratzeko irizpideak:

Gehieneko puntuazioa: 100 puntu. Gehieneko puntuazio osoaren %50 baino gutxiago lortzen duten proiektuei ez zaie laguntzarik emango.

- Klusterraren garrantzia enpresa elkartuei dagokienez, sektorearen guztizkoarekiko, enpleguari eta fakturazioari dagokienez (20 puntu).
- Sektorearen izaera berritzailea (10 puntu).
- Nazioartekotze-estrategia (10 puntu).
- Proiektuan sartutako enpresa txikien kopurua (20 puntu).
- Helburu diren merkatuak eta herrialdeak (20 puntu).
- Merkatuen berritasuna (10 puntu).
- Gizartearekiko konpromisoa eta jasangarritasuna (10 puntu).

Administrazio fitxa:

- | | |
|---|---------------------------------------|
| • Deialdia argitaratzea: GAO | • Eskaeren epea ixtea: 2024ko apirila |
| • Eskaeren epea irekitzea: 2024ko martxoa | • Aurrekontuko zuzkidura: 150.000 € |

Estekak:

- Eskaera 
- Araudia 

Kontaktua: Blanca Margeli

-  943 11 22 52
-  bmargeli@gipuzkoa.eus 

ELKARTU (Elkartek)

Programaren helburua:

Elkartuk enpresa-elkarteei, enpresa-lankidetzako taldeei, esportazio-partzuergoei, salmenta-taldeei edo kanpo-merkatuetan batera jarduteko konpromisoa duen beste edozein lankidetzaz-figuri laguntzen die.

Mota:

Enpresen nazioartekotzea sustatzeko proiektuetarako funts galdurako diru-laguntza, aholkularitza operatibo edo estrategikoaren arloko gastu arruntak eta enpresak sustatu eta egokitzeko bestelako gastuak barne hartzen dituztenak, kanpoko merkatuetan sartzeko oztopoak gainditzeko.

Onuradun izateko baldintzak:

- Irabazi-asmorik gabeko erakundea izatea.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta egotea.
- Helburu nagusietako bat enpresa elkartuen nazioartekotzea izatea, eta horretarako plangintza zehatza izatea.

Prozesua:

Eskaerak ordenan ebatziko dira, espedienteko dokumentazioa osatuta dagoen unearen arabera eta aurrekontua agortu arte.

Aurreikusitako eskaera-data:

- Hasiera: 2024ko uztailaren 22an
- Amaiera: 2024ko urriaren 30ean

Diru-laguntzen zenbatekoa/muga:

- 50.000 € eskaera bakoitzeko
- 15.000€ parte hartzen duen enpresa bakoitzeko (enpresa-taldeetan, Agenda 2030ekiko konpromisoa baloratuko da)

ELKARTU (Elkartek)

Jasandako ekintzak eta estalitako gastuak:

- Enpresa-lankidetzarako taldea eratzeko gastuak (taldea sortzeko gastuak)
- Lankidetzat-taldea dinamizatzeko eta koordinatzeko gastuak (langileak)
- Eraketa-gastuak (aholkularitza juridikoa, fiskala, finantzarioa...)
- Egitura-gastuak (langileak erakartzeko eta partzuergoko kudeatzailearen soldata..)
- Taldearen Nazioartekotze Plana garatzeko kanpoko aholkularitzaren gastuak
- Bestelako aholkularitza- eta sustapen-gastuak
- Aholkularitza estrategikoa eta operazionala
- Bezero izan daitezkeenentzako bidaiak eta gobidapenak
- Sustapen-gastuak eta nazioarteko eragiketara bideratutako talentua erakartzearekin lotutako gastuak

Proiektuak baloratzeko irizpideak:

Laguntza hauek behar bezala aurkeztutako eskaerak elkarren segidan lehiatzeko prozeduraren arabera tramitatuko dira.

- Eskaera telematikoa, behar bezala betea eta erakunde eskatzailearen legeko ordezkariak izenpetua, behar besteko ahalordearekin.
- Erakunde eskatzailearen eskriturak eta/edo ordezkari-taldea-ahalmena.
- Eskatzaileak emandako kontu korrantearen banku-titulartasunaren ziurtagiria.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.
- Erantzukizuneko aitortpena, Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioan (EUD), 2003-05-20ko L 124 Aldizkari Ofizialean (EUD), 0036-0041 orrialdean (3. eranskina) adierazitakoarekin bat etorritik, ETE dela frogatzeko.
- Azken bi zerga-ekitaldietan jasotako minimis laguntzen erantzukizuneko aitortpena.
- Memoria, diru-laguntzaren xede diren jardueren zerrendarekin, gastu motaren banakapenarekin, xedearen arabera.
- Global Compact-eko edo Mundu Hitzarmeneko (bazkide izanez gero) bazkide dela egiaztatzea.

Administrazio-fitxa:

- | | |
|---|-------------------------------------|
| • Deialdia argitaratzea: EHAA | • Eskaeren epea ixtea: 2024ko urria |
| • Eskaerak egiteko epea irekitzea: 2024ko uztaila | • Aurrekontuko zuzkidura: 500.000 € |

Estekak:

- Ekaera 
- Araudia 

Kontaktua:

-  900 92 93 93
-  info@spri.eus 

ELKARTU (Enpresa-lankidetzako taldeak)

Programaren helburua:

Elkartuk enpresa-elkarteei, enpresa-lankidetzako taldeei, esportazio-partzuergoei, salmenta-taldeei edo kanpo-merkatuetan batera jarduteko konpromisoa duten beste edozein figura juridikoei laguntzen die.

Mota:

Enpresen nazioartekotzea sustatzeko proiektuetarako funts galdurako diru-laguntza, aholkularitza operatibo edo estrategikoaren arloko gastu arruntak eta enpresak sustatu eta egokitzeko bestelako gastuak barne hartzen dituztenak, kanpoko merkatuetan sartzeko oztopoak gainditzeko.

Onuradun izateko baldintzak:

- Gutxienez 2 enpresak osatuta egon behar dute, independenteak eta loturarik gabeak, eta beren operazio-sinergiekin eragindako abantailen elkarrekotasunak bultzatuta, konpromisoa hartzen dute kanpo-merkatuetan batera jarduteko, arriskuak eta kostuak partekatuz.
- Enpresa onuradunak EAEn kokatutako edo ekoizpen-instalazioak dituzten enpresa handiak eta ETEak izan daitezke.
- Enpresa handiek parte hartzen duten proiektuetan, enpresa horiek traktoreak izan beharko dute eta gutxienez ETE bat izan beharko dute.
- Jarduerak enpresen eta/edo erakundeen arteko lankidetzaz hitzarmen batean oinarrituta egon beharko dute, kontratu moduan edo beste edozein dokumentutan.
- Jarduera-plan bat edo nazioartekotze-estrategia bateratua izango behar dute.

Prozesua:

Eskaerak ordenean ebatziko dira, espedienteko dokumentazioa osatuta dagoen unearen arabera eta aurrekontua agortu arte.

Aurreikusitako eskaera-data:

- Hasiera: 2024ko uztaila
- Amaiera: 2024ko urria

Diru-laguntzen zenbatekoa/muga:

- 45.000 € eskaera bakoitzeko
- 15.000€ parte hartzen duen enpresa bakoitzeko (enpresa-taldeetan, Agenda 2030ekiko konpromisoa baloratzen da)

ELKARTU (Enpresa-lankidetzako taldeak)

Jasandako ekintzak eta estalitako gastuak:

- Enpresa-lankidetzarako taldea eratzeko gastuak (taldea sortzeko gastuak)
- Lankidetzak-taldea dinamizatzeko eta koordinatzeko gastuak (langileak)
- Eraketa-gastuak (aholkularitza juridikoa, fiskala, finantzarioa...)
- Egitura-gastuak (langileak kontratatzeak, partzuergoko kudeatzailearen soldata...)
- Taldearen Nazioartekotze Plana garatzeko kanpoko aholkularitzaren gastuak
- Bestelako aholkularitza- eta sustapen-gastuak
 - » Aholkularitza estrategikoa
 - » Eragiketa-aholkularitza
 - » Azoketara bertaratzea eta horietan parte hartzea, formatu presentzialean eta formatu birtual berrietan
 - » Bezero izan daitezkeenentzako bidaiak eta gonbidapenak
 - » Sustapen-gastuak eta nazioarteko eragiketara bideratutako talentua erakartzearekin lotutako gastuak

Proiektuak baloratzeko irizpideak:

Laguntza hauek behar bezala aurkeztutako eskaeren ondoren ondoko lehia-prozeduraren arabera izapidetuko dira.

- Eskaera telematikoa, behar bezala bete eta erakunde eskatzailearen legezko ordezkariak sinatua, behar adinako ahalmena duena.
- Erakunde eskatzailearen eskriturak eta/edo ordezkariak-ahalmena.
- Eskatzaileak emandako kontu korrontearen banku-titulartasunaren ziurtagiria.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.
- Erantzukizuneko aitortpena, ETE izaera egiaztatzen duena, Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioan (EUD), L 124 zk.koan, adierazitakoarekin bat etorritik. 2003-05-20, 0036-0041 or. (3. eranskina).
- Aurreko bi zerga-ekitaldietan eta indarrean dagoen zerga-ekitaldian jasotako minimis laguntzen erantzukizuneko aitortpena, minimis laguntzei buruzko Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamenduari lotuta daudenak.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak.
- Erantzukizuneko aitortpena, ETE izaera egiaztatzen duena, Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioan (EUD), L 124 zk.koan, adierazitakoarekin bat etorritik. 2003-05-20, 0036-0041 or. (3. eranskina).
- Aurreko bi zerga-ekitaldietan eta indarrean dagoen zerga-ekitaldian jasotako minimis laguntzen erantzukizuneko aitortpena, minimis laguntzei buruzko Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamenduari lotuta daudenak.
- Memoria, dirulaguntza zein jardueratarako eskatzen den azaltzen duena, jarduera motaren helburuaren arabera gastua.
- Global Compact edo Munduko Itunean bazkide izatearen egiaztatzea, bazkide izanez gero.
- Enpresen eta/edo erakundearen arteko lankidetzak-akordioa, (kontratua edo beste edozein dokumentu) zalantzarik gabe, alderdien arteko konpromisoa egiaztatzen duena.
- Enpresa-lankidetzako taldearen jarduerak-plana.

Administrazio-fitxa:

- | | |
|--|--|
| • Deialdia argitaratzea: EHAA | • Eskabideak aurkezteko epearen amaiera: |
| • Eskabideak aurkezteko epea irekitzea: 2024ko | 2024ko urria |
| uztaila | • Aurrekontuko zuzkidura: 500.000 € |

Estekak:

- Eskaera 
- Araudia 

Kontaktua:

-  94 403 71 60
-  info@basquetrade.eus 

ELKARTU (Partzuergoak)

Programaren xedea:

Elkartuk enpresa-elkarteei, enpresa-lankidetzako taldeei, esportazio-partzuergoei, salmenta-taldeei edo kanpo-merkatuetan batera jarduteko konpromisoa duten beste edozein figura juridikoei laguntzen die..

Mota:

Enpresen nazioartekotzea sustatzeko proiektuetarako funts galdurako diru-laguntza, aholkularitza operatibo edo estrategikoaren arloko gastu arruntak eta enpresak sustatu eta egokitzeko bestelako gastuak barne hartzen dituztenak, kanpoko merkatuetan sartzeko oztopoak gainditzeko.

Onuradun izateko baldintzak:

- Nortasun juridiko propioa izatea, hura osatzen duten enpresa edo erakundeekiko independentea.
- Partzuergoa kudeatzeko kontratatutako pertsona bat izatea, dedikazio osoarekin.
- ETEen definizioa Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioan zehaztutakoaren arabera aplikatzea.
- Onuradun izateko baldintzak dirulaguntzaren indarraldi osoan iraun beharko du.

Prozesua:

Eskaerak ordenean ebatziko dira, espedienteko dokumentazioa osatuta dagoen unearen arabera eta aurrekontua agortu arte.

Aurreikusitako eskaera-data:

- Hasiera: 2024ko uztaila
- Amaiera: 2024ko urria

Diru-laguntzen zenbatekoa/muga:

- 60.000 € eskaera bakoitzeko
- 15.000€ parte hartzen duen enpresa bakoitzeko (enpresa-taldeetan, Agenda 2030ekiko konpromisoa baloratzen da)

ELKARTU (Partzuergoak)

Jasandako ekintzak eta estalitako gastuak:

- Enpresa-lankidetzarako taldea eratzeko gastuak (taldea sortzeko gastuak)
- Lankidetzat-taldea dinamizatzeko eta koordinatzeko gastuak (langileak)
- Eraketa-gastuak (aholkularitza juridikoa, fiskala, finantzarioa...)
- Egitura-gastuak (langileak hartzeko eta partzuergoko kudeatzailearen soldata..)
- Taldearen Nazioartekotze Plana garatzeko kanpoko aholkularitzaren gastuak
- Bestelako aholkularitza- eta sustapen-gastuak
 - » **Aholkularitza estrategikoa**
 - » **Eragiketa-aholkularitza**
 - » **Azoketara bertaratzea eta horietan parte hartzea, formatu presentzialean eta formatu birtual berrietan**
 - » **Bezero izan daitezkeenentzako bidaiak eta gonbidapenak**
 - » **Sustapen-gastuak eta nazioarteko eragiketara bideratutako talentua erakartzearekin lotutako gastuak**

Proiektuak baloratzeko irizpideak:

Laguntza horiek behar bezala aurkeztutako eskabideen ondoz ondoko lehia-prozeduraren arabera izapidetuko dira.

- Erakunde eskatzailearen legezko ordezkariak behar bezala betetako eta izenpetutako eskabide telematikoa, behar besteko ahalordea duena.
- Erakunde eskatzailearen eskriturak eta/edo ordezkari-taldea-ahalordea.
- Eskatzailearen kontu korrantearen banku-titulartasunaren ziurtagiria.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete direla egiaztatzen duten ziurtagiriak.
- Erantzukizunpeko adierazpena, ETEak direla egiaztatzen duena, Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioan adierazitakoaren arabera – Aldizkari Ofiziala (EUD), L 124 zk., 2003-05-20koa, 0036-0041 or. (3. eranskina).
- Batzordearen 1407/2013 (EB) Erregelamenduari lotuta dauden aurreko bi ekitaldi fiskaletan eta uneko ekitaldi fiskalean jasotako minimis laguntzei buruzko erantzukizunpeko adierazpena.
- Memoria, dirulaguntzaren xede diren jardueren zerrendarekin, gastu motaren banakapenarekin, xedearen arabera.
- Global Compact edo Munduko Itunean bazkide izatearen egiaztatzea, bazkide izanez gero.

Administrazio-fitxa:

- | | |
|--|-------------------------------------|
| • Deialdia argitaratzea: EHAA | • Eskaren epea ixtea: 2024ko urria |
| • Eskarak egiteko epea irekitzea: 2024ko uztaila | • Aurrekontuko zuzkidura: 500.000 € |

Estekak:

- Eskaera 
- Araudia 

Kontaktua:

-  900 92 93 93
-  info@spri.eus 

3.3. Ekoizpen ezarpenak



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa

KANPOKO EKOIZPEN-EZARPENEN PROGRAMA

Programaren helburua:

Programaren helburua Gipuzkoako enpresen kanpoko ekoizpenen ezarpenak sustatzea da, nazioartekotzeak enpresen lehiakortasunerako palanka gisa duen ahalmena aprobetxatuz.

Mota:

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza

Onuradun izateko baldintzak:

- Gipuzkoako enpresa txiki eta ertainak (ETE).
- Gipuzkoan kokatutako enpresa handien kasuan, ETEek aurkeztutako proiektuek programa honi esleitutako aurrekontua agortzen ez badute soilik izango dira onuradunak.

Prozesua:

Norgehiagoka araubidea.

Aurreikusitako eskaera-data:

- 2024ko martxoan hasiko da.
- 2024ko apirilean amaituko da.
- Proiektuak egiteko epea: 2024ko urtarrilaren 1etik 2025eko irailaren 30era arte.

Diru-laguntzen zenbatekoa/muga:

- Laguntzen finantzaketa: 300.000 euro.
- Diru-laguntzaren gehieneko portzentajea: %40
- Diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa erakundeko: 100.000 euro.
- Kontu ikuskatua: %100 gehienez 3.000 euro.
- Minimis arauari lotutako diru-laguntzak.

KANPOKO EKOIZPEN-EZARPENEN PROGRAMA

Diru-laguntza jaso dezaketen gastuak:

